

Astigar zorrotza (*Acer platanoides* 'Crimson King')

'Crimson King' zure herrian ere aurkituko duzun astigar zorrotzaren barietate bat da, zehazki hosto gorria duen barietatea. Honen hosto-formak platano arruntarena gogorarazten du, hortik datorkio bere izen espezifiko *platanoides*.

Altueran originala bezain beste hazten ez bada ere, 15 metrora irits daiteke; Batez ere, hostoak jaiotzen direnean duten kolore gorri purpuragatik nabarmentzen da. Udazkenean, hosto horiek iluntzen joango dira eta granate-kolorea hartuko dute erori baino lehen.

Begira udaberrian loreei: kolore horia dute eta botanikan *panikula* deitzen zaie, hau da, mordoxkaz osatutako mordoxka handiagoa. Erleek polinizatu ondoren, bi hazi hegodun bilakatuko dira, astigar berdearenak baino ilunagoak diren disamara tipikoan.

Klima atlantikora egokitutako zuhaitza da, lehortea onartzen ez duena, baina izurriteak eta gaixotasunak ondo jasaten dituena, beraz, kasu honetan bezala, apaindura-erabilerarako oso egokia da.

